



UDALA ELORRABIKO ZUBIA

Elorrabiko zubia errealitate, zazpi urteren ondoren

Aurten hasiko dira zubia eraikitze obrak; lau hilabetez luzatuko direla aurreikusi dute: «gutxienez, oinezko bat eta bizikleta bat lasaitasunez elkarrekin pasatzeko modukoa» izango dela azaldu dute Luis Intxauspe alkateak eta udal arkitektoak.

ZAZPI urte beteko dira aurten 2011ko azaroaren 6an Elorrabiko Zubia ibaiak eraman zuenetik. Ordutik, berri bat eraikitze lanean ari dela onartu du Luis Intxauspe alkateak, eta aurten errealitate bihurtuko dela dirudi: «obrak aurten hasteko lanean ari gara».


2011tik, lanean

Intxauspe alkateak eta udal arkitektoak emandako azalpenen arabera, buelta asko eman dituen proiektua izan da Elorrabiko zubiarena: «uholdeen kalteak neurtzerakoan, ondare publikoen kalteen inbentarioan sartu genuen zubia. 150.000 euroko aurrekontua egin genuen, eta horietatik, 75.000 euro eman zizkigun Gipuzkoako Foru Aldundiak zubia egiteko, Uholdeengatik Kaltetutako herriei diru-laguntzen baitan», dio Alkateak.

Baina segituan topatu ziren aurreneko oztopoekin: «tramitazioekin hasi ginenean, URAK eta Kantauriko Ur Konfederakuntzak (Confederación Hidrográfica del Cantábrico), baimenak ematen dituzten erakundeek, esan ziguten ezinezkoa zela aurrekoa bezalako zubi kolgante bat egitea. Zubi berri batek beste altura bat, eta beste kota batzuk beharko lituzkeela; eta kolgantea ezin zuela izan, hormigoizko plataforma bat izan behar zuela».

Aldundiaren laguntza, proiektua idazteko

Hori atzera bota ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egin zuen Udalak hitzarmena, proiektua haiek idatzi zezaten: «hala, aurreneko proiektu bat egin zuten, baina nahiz eta



Elorrabiko Zubi berriaren planoak. Dokumentu osoa ikusteko: www.kronika.eus.

URAKen aurreneko aldeko txosten bat izan, Konfederazioak atzera bota zuen», udal arkitektoaren esanetan.

Horri gehitu behar zaio: «baimen horiek lortzeko tramitazioak oso luzeak dira; hilabeteak pasa zituzten ezezko hori emateko».

Kokapenarekin, bueltaka

Orduan, kokalekua ere berrantsatu behar izan zuten Foru Aldundiarekin batera: «ezezkoa ematen zuen txostenean, Konfederazioak zioen agian beste kokapen batzuk planteatu zitezkeela, beren ustetan hidrologiaren aldetik egokiagoak izan litezkeenak».

Hain zuzen, Intxauspek dioenez, «bizpahiru proposamen egin zituen, betiere inguru horretan, metro batzuk gorago/beherago». Gainera, udal arkitektoaren esanetan: «horietako batzuk gehiegi urruntzen ziren, eta horrek suposatzen zuen aldapa asko igotzea.

Gainera, ibairako sarbideak ere mugatzen zituen».

Uholde arriskuak ere baldintzatu du proiektua. Bi arazo zeuden: zubiaren kota edo altuera, eta ibai ertzak. Bereziki, bigarrenak: «aurreneko proiektuan, lurra zegoen ibai ertzean, baina ura hazita datorrenean, oztopo bilakatu zitezkeen. Zutabeak jartzea erabaki da, eta beraz, ura arazorik gabe pasa ahal izango da».

Oinarrizko proiektua, 2017 hasieran

Hori ikusita, kokaleku berean egitea erabaki zen: «aztertu zen, eta ikusi zen mugikortasunaren ikuspegitik egokiena zela».

Behin erabakia hartuta, oinarrizko proiektua idatzi zuten Foru Aldundiak 2017 hasieran: «horrekin baimenak lortu genituen, eta proiektua garatu zen. Gaur egunean mahai gainean daukagu exekuzio-proiektua. Esleitzea falta da,

eta lanen programa osatzea».

Egutegia animalien ugalketa zikloari ezartzen dioten babesak mugatuko du, bereziki; urteko garai batzuetan ezin delako lanik egin. Gainera, Udal Gobernuak txotx denboraldirako prest egotea nahiko luke, jende asko dabilen garaia baita.

«Erabat irisgarria»

Zubi berriari dagokionez, azkeneko proiektuak halaxe deskribatzen du: «aurreko pasabidea zegoen tokian pasabide metaliko bat egingo da. [...] Sendotasun haundiagoko egitura metalikoa izango du, erosotasun betebeharrak nabarmen hobetzen dituen geziei eta bibrazioei dagokionez». Gainera, «arku itxurako beheko kordoiarekin diseinatu da, bukaera arinagoa eman nahian».

Dimentsioak ere, desberdinak izango dira aurrekoarekin alderatuz: «barruko zaba-

Luis Intxauspe, alkatea: «guretzat mugikortasunaren ikuspuntutik garrantzitsua da zubi hau»

lera libre 1,50 metrotik 3,00 metrora pasa da». Hortaz, udal arkitektoak dio «gutxienez, oinezko bat eta bizikleta bat lasaitasunez elkarrekin pasatzeko modukoa» izango dela.

Bestalde, proiektuan azaltzen den moduan, «estriboen kota igo egin denez, bidezubi bat beharrezkoa izango da, bai ezkerreko ertzean, baita eskuinekoan ere, sarbideak gauzatzeko %6ko malda batzuen bidez». Hori da, hain zuzen, araudiak dioena, eta zubia «erabat irisgarria» egingo duena.

Mugikortasuna, helburu

Luis Intxauspe alkateak nabarmendu du oinezkoak eta bizikletak uztartzea izan dela asmoa: «guretzat mugikortasunaren ikuspegitik garrantzitsua da zubi hau; lehen, oinezkoen ibilbideen sarean zirkuitu garrantzitsu bat zelako, baina baita ere bidegorrien ibilbidean jasota zegoelako». «Sagardotegi garaian ere, Osiñagako bidea deskongestionatzeko garrantzitsua izango da», onartu du. Gainera, industrialdea lotzen duen bidegorria ere izango dela dio.

Era berean, Arraun Elkarteko kideak gogoan ditu: «bere jardueran eragina izan du, eta bada eragile bat obra honen jarraipena egin duena». II

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN! AHOLKULARITZA PROFESIONALA.

Dekoraziorako eta industriadako pinturak
Mota guztietako zoru-pinturak
Fotobien preskripzio teknika (10 urteko garantia)
Aholkularitza teknika
Kolore berdintzeetan espezialistak
Mota guztietako zoru salmenta eta jartzea
3000 erreferentziatutako gora pisu-pinturak
Bimilak
Sgrayer ontzintzea
Etxeaz etxeko zerbitzua

ASILLIENLILIK OSTIRAL FRA
7:30 - 13:00
15:15 - 19:00
LARUNBETAN
9:00 - 13:00

943 55 21 31
ANDRE KALEA, 45
HERNANI

taegi edanietxea
DEGUSTAZIO DENDA

12tik 18ra (biak barne)
itxi egingo ditugu ateak

ABUZTUKO ORDUTEGIA
Asteazkenean igandera:
11:30-13:30
Asteartetik igandera:
20:30-22:30

Ondu: kanpoko katu edo destabato bat egin ahal izateko, erreserba egin telefonoz.

Andre kalea 33, Hernani
943 12 84 03 / 681 394 083

"Ari du" abestiaren bioklipa grabatzeko zure laguntza behar dugul!

euSkara ari du

GAUR Tilosetan arratsaldeko 19:00etan

AZALDU!

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941 / Gauez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA **GAUR** Goizean, lainoen eraginez, xirimiria egin dezake. Arratsaldeak aurrera egin ahala, aldiz, atertze egingo du. Gainera, tenperatura maximoek gora egingo dute. **Min.16° / Max.23°**

BIHAR Udako giroa bueltan izango da gaur. Giro eguzkitsua nagusituko da, eta beroa egingo du. Arratsaldean lainoak sartuko dira. Tenperaturak gora egingo du, nabarmen. **Min.16° / Max.27°**

GOIZUETA

Fiestak iragartzeko zitak gaurtik, labaderoan

Erakusketa jarriko dute programa zaharrekin arratsaldean, eta ondoren, INUN taldearen kontzertu akustikoa izanen da, gaueko 22:00etan hasita.

TABERNAK prestaketa lanean; zezenetako hesiak plazan... ia dena prest daukate Goizuetan Amabirjin Jaiei hasiera emateko. Asteartean izanen da txupinazoa, baina horren aurretik ere, gaurtik, fiesta giroa nabaritzen hasiko da.

Aurreneko zitak, labaderoan Asteburu arintzeko asmoz, *Festaurre kulturala* izenburupean hainbat ekintza antolatu ditu Udalak gaur eta biharko.

Alde batetik, bi egunetarako zerbait izanen da; fiestetako programa zaharrekin erakusketa paratu dute, eta gaur eta bihar izanen da ikusgai, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara.

Eta bestetik, bi jarduera. Gaurkoa helduentzat izanen da, eta biharko, aldiz, haurrentzat. Herriko helduenek INUNen kontzertu akustikoa-

Ipuin kontaketa izanen da bihar, haurrentzat, arratsaldeko 19:00etan, labaderoan.

rekin gozatu ahal izanen dute gaur, gaueko 22:00etatik aurrera. Bihar izanen da haurren txanda; Maider Garin Bakeroren eskutik, *Paperezko gizon-emakumeak* ipuin kontaketa izanen dute, arratsaldeko 19:00etan.

Jarduera guztiak Goizueta-ko labaderoan izanen dira.

Txartelak, salgai Bitartean, prestaketa lanekin jarraituko dute askok. Besteak beste, hainbat bazkari izanen dira fiestetan zehar, eta horietarako txartelak salgai daude dagoeneko.

Etzi, igandez, izanen da

aurrenekoa Umeena; eta bertaratzeko txartelak Estankoan eta Harategian daude salgai, 5 euroan.

Hurrengo, Gazteen Eguneak izanen da; txupinazoren egun berean izanen da, asteartean. Txartelak Amaia kafetegian erosi daitezke, bi preziotan: langileentzat 18 euroan, eta langabetuentzat 15 euroan.

Amaian bertan izanen dira salgai abuztuaren 18ko Peñaren bazkariak, baita Estankoan ere. Ostegunera arte izanen dira salgai, 30 euroren truke.

Kamixetak hartzeko aukera Horrez gain, Gazte Eguneko kamixetak jasotzeko zita ere, gaurko jarri dute. 18:00etatik 19:00etara izanen dira Plazan. Orduan hartu ezin duenak, asteartean ere egin dezake; 10:30etatik 11:30etara. ||

ARGENTINA ABORTUAREN LEGEA



Hernanin bizi edo dabiltzan argentinarrak herenegun 'Legezkoa izan dadila' aldarrikatzen.

Argentinan abortua despenalizatzeko aldarria, Hernanitik

Gau luzea izan zuten herenegun Hernanin bizi diren edo hemen dabiltzan argentinarrak, hamazazpi orduz luzatu baitzen atzo abortua legeztatze argentinako Senatuko eztabaida. Ekainaren erdialdean onartu zuen Kongresuak Legea, baina Senatuak berretsi beharra zeukan. Eztabaida sutuaren ondoren, estua izan zen bozketa: 38 senatarik aurka egin zuten, 31k alde, eta azkenik, bi abstenitu egin ziren. Horren aurretik, Latsunbeberriko frontoian egin zuten Legearen aldeko argazkia Hernanin dauden argentinarrak batzuek; «hurrengo urtera arte itxaron beharko dugu, baina noizbait aterako da, seguru», onartu zuten atzo. ||

EUSKARA ARI DU

Herritarrei deia, bideoklipa grabatzeko

Ari Du abestiaren bideoklipa grabatuko du gaur Euskara Ari Du elkarteak, Tilosetako kioskoaren aurrean, arratsaldeko 19:00etan hasita. Herritarrei egin diete deia, parte hartzeko. Ainara Azpiazu *Axpik* silueta batzuk markatuko ditu, eta herritarrek margotu egin beharko dituzte. Hori egin bitartean grabatu egingo dute. Bideoklipa urrian aurkeztea aurreikusi du Euskara Ari Du elkarteak. ||

BISITA GIDATUA

Kardaberazi buruz bisita, bihar

Agustin Kardaberaz III. Milurtean proiektuaren barruan, Hernanin egingo dute bisita gidatua bihar. Turismo bulegoaren ondotik hasiko da bisita arratsaldeko 18:00etan. Bisita debalde da, baina izena eman behar da aurretik: cardaveraz@gmail.com. ||

ARANO

Bazkarirako izenematea, etzira arte

Ohi bezala, San Roke eguna Aranon pasako dute inguruko txistulariek. Era berean, bazkari herrikoia izango da Kontsejun. Bertaratu nahi duenak etzira arte eman dezake izena: 948 514 279. ||

PRESO ETA IHESLARIAK

Enkartelada, Plazan hasita

Iluntzeko 20:00etan Plazatik abiatuko den enkarteladan parte hartzeko dei egin diete preso eta iheslarien senide eta lagunek, herritarrei. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **LUIS UBIDE TEJADA**
Atzo hil zen, 80 urte zituela
- Goian Bego -
Emaztea: Ana María Areso; seme-alabak: Koldo eta Sara, Asier, Ane eta Alex; bilobak: Amaia, Nora eta Ander; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2018ko abuztuaren 10ean
Helbidea: Latsunbe Berri auzoa
OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:30ak arte.

LUIS UBIDE TEJADA
(HETko lehendakari ohia)
Eskerrik asko Luis eskubaloien alde egindako lanagatik. Ordain ezina izan da. Besarkada handi bat familiari.
HERNANI ESKUBALOI TALDEA
Hernanin, 2018ko abuztuaren 10ean

JOSE LUIS FERNANDEZ ARREGI
Beti gogoratuko zaitugu maitasunez.
OSABA-IZEBAK ETA LEHENGUSUAK
Ramón (†) eta Ana Mari (†), Arantza-Javier, Ana-Manolo eta Letizia. Martxel eta Mari Loli, Eñaut-Maialen, Nikole eta Martina, Martxel-Maialen, Malen eta Nahia. Mikel eta Mari Karmen, Mañel-Maialen, June, Elene eta Lorea, Ekaitz-Ana.
Hernanin, 2018ko abuztuaren 10ean

IRAGARKI MERKEAK

Ilñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)